Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Politiketako Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Políticas Sociales

Zarauzko Udala

Donostia, 2023ko martxoaren 24an

San Sebastián, 24 de marzo de 2023

ELKARTU DIRA

REUNIDOS

Alde batetik, **MAITE PEÑA LÓPEZ** anderea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuko foru diputatua.

De una parte, **Dña. MAITE PEÑA LÓPEZ**, Diputada Foral del Departamento de Políticas Sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Beste aldetik, **XABIER TXURRUKA FERNÁNDEZ** jauna, Zarauzko alkate gisa, Zarauzko udalaren izenean eta ordez, (IFZ: P2008500G) jakinarazpen ondorioetarako helbide hau duena: Zigordia kalea 13, Zarauz.

De otra parte, **D. XABIER TXURRUKA FERNÁNDEZ**, en su condición de alcalde, actuando en nombre y representación del Ayuntamiento de Zarautz (C.I.F. nº P2008500G), con domicilio a efectos de notificaciones: Zigordia kalea 13, Zarautz.

Bi aldeek, ordezkatzen dutenaren izenean eta ordez eta ekitaldi hau gauzatzeko beharrezkoa den lege gaitasuna daukatela, honako hau

Las partes, en el nombre y representación en que concurren y con la capacidad legal necesaria para la celebración de este acto

AZALTZEN DUTE

EXPONEN

Gizarte Zerbitzuetako abenduaren 5eko 12/2008 Legeak adierazten duen bezala, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan zehazten dira euskal administrazio publiko eskudunek bermatu behar dituzten prestazio ekonomikoak eta zerbitzuak.

Que la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales define el Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales como el instrumento por el que se identifican las prestaciones económicas y los servicios cuya provisión deberán garantizar las administraciones públicas competentes.

Gizarte Zerbitzuetako abenduaren 5eko 12/2008 Legeak xedatzen du Foru Aldundiaren eskumena dela Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoko bigarren mailako arreta zerbitzuak eskaintzea.

Que la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales dispone que será competencia de la Diputación Foral la provisión de los servicios de atención secundaria del Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco De Servicios Sociales.

Bigarren mailako zerbitzu horietako batzuen helburua da pertsonen autonomia sustatzea eta mendetasun-egoerek pertsonei eta familiei eragiten dizkieten beharrizanei aurre hartu eta erantzutea.

Que determinados servicios sociales de atención secundaria están dirigidos a promover la autonomía personal y prevenir y atender las necesidades personales y familiares derivadas de la dependencia.

Gizarte Zerbitzuetako abenduaren 5eko 12/2008 Legeak dioenez, administrazioek elkarren artean eta beste erakunde publiko batzuekin duten lankidetza, lankidetzako hitzarmenen edo indarreko legerian araututako edozein formularen

Que la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales establece que la colaboración de las administraciones públicas entre sí y con otras entidades públicas, se instrumentará a través de convenios de colaboración o cualquiera de las

ESKUe980fd84-b333-4829-9550-804c335801eb

bidez gauzatuko da.

Zarauzko udalak, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroko E-20 000228 0000 zenbakia duenak, aitortzen duela zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekin egunean dagoela.

Zarauzko udalak mendetasun-egoerek pertsonei eta familiei eragiten dizkieten beharrizanen alde denboran zehar emandako zerbitzuak interesgarriak iruditzen zaizkio Gipuzkoako Foru Aldundiari, hori dela eta ontzat jotzen du lankidetza hitzarmena sinatzea bi alderdien arteko harremanak arautzeko, ondorengo baldintzen arabera:

fórmulas reguladas en la legislación vigente.

Que el Ayuntamiento de Zarautz, con número E-20 000228 0000 del Registro Foral de Servicios Sociales de Gipuzkoa, declara que se encuentra al corriente de sus obligaciones tributarias y en materia de Seguridad Social.

Que los servicios que de manera continuada viene prestando el Ayuntamiento de Zarautz en favor de personas con necesidades personales y familiares derivadas de la dependencia son de interés para la Diputación Foral de Gipuzkoa; por lo que estima procedente establecer un convenio de colaboración que regule sus relaciones, con arreglo a las siguientes:

BALDINTZAK

ESTIPULACIONES

1. XEDEA

Hitzarmen honen helburua da Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Gizarte Politiketako Departamentuaren bidez, eta Zarauzko udalaren (hemendik aurrera erakundea) arteko lankidetza arautzea, mendetasun-egoerek eragindako beharrizanei aurrea hartu eta erantzuteko zerbitzuak eskaintzeko.

Erakundeak bertan ezarritako betebeharrak bete beharko ditu, zuzenean edo dagokion zerbitzua ematen duen enpresari betebehar horiek betetzeko eskatuz, kontratazioa arautzen duten baldintza agirietan dagozkion klausulak barne.

1ª OBJETO

Es objeto del presente convenio regular la colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa, a través del Departamento de Políticas Sociales, y el Ayuntamiento de Zarautz (en adelante la entidad), para la prestación de servicios destinados a prevenir y atender necesidades derivadas de la dependencia.

La entidad deberá cumplir las obligaciones establecidas en el mismo directamente o mediante la exigencia de su cumplimiento a la empresa que preste el correspondiente servicio, incluyendo las clausulas correspondientes en los pliegos que rijan la contratación.

2. ZERBITZU ETA PROGRAMAK

Udalak konpromisoa hartzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak zehazten dituen pertsonei honako zerbitzu hauek emateko, hain zuzen ere, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren I. eranskinean zehaztutakoak:

- 2.2.1.1 Mendetasun-egoeran dauden adinekoentzako eguneko zentroa.

2ª SERVICIOS Y PROGRAMAS

El Ayuntamiento se compromete a proporcionar a las personas que determine la Diputación Foral de Gipuzkoa los siguientes servicios definidos en el Anexo I del Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales:

- 2.2.1.1 Centro de día para personas mayores en situación de dependencia.

ESKUe980fd84-b333-4829-9550-804c335801eb

3. ERAKUNDEAREN BETEBEHARRAK

a) Erabiltzaileei arreta egokia, osoa, pertsonalizatua eta jarraitua ematea, beren laguntza beharrizan berariazkoei egokitua.

b) Emandako zerbitzuak erabiltzaileei fakturatzea, 2015eko ekainaren 2ko 15/2015 Foru Dekretuak, erabiltzailearen ekarpen ekonomikoaren araubidea arautzekoak, III. Tituluan ezartzen duenari jarraituz.

c) Erabiltzaileek zerbitzua berdintasun baldintzetan erabil dezaten bultzatzea; betiere, duintasunerako eta intimitaterako duten eskubidea babestea; eta haien datu pertsonalak, familiarrak edo sozialak konfidentzialtasunez eta zuhurtasunez tratatzeko betebeharra betetzea.

d) Gipuzkoako Foru Aldundiari aurretiko baimena eskatzea hitzarmen honen lagapena egiteko.

e) Gipuzkoako Foru Aldundiari behar den aurrerapenez komunikatzea eskainitako zerbitzuetan izandako edozein aldaketa edo bariazio eta, bereziki, plantilaren kualifikazioan edo konposizioan izandako edozein aldaketa.

f) Gipuzkoako Foru Aldundiari laguntzea, beti, ikuskapen, fiskalizazio eta auditoretza lanetan, eta bereziki, eskatzen dion eta hitzarmenaren gauzatzea balioesteko beharrezkoa den informazio guztia ematea hainbat arlori buruz –ekonomikoa, fiskala, laborala, teknikoa, asistentziala eta beste edozein eratakoa–, datuen babesari buruzko legeei eta aplikagarri diren gainerako arauei jarraituta.

g) Jarritako herri funtsen gainean Gipuzkoako Foru Aldundiko organo eskudunei dagozkien finantza kontroleko jardueren mende jartzea.

3ª OBLIGACIONES DE LA ENTIDAD

a) Proporcionar a las personas usuarias una atención adecuada, integral, personalizada y continuada, adaptada a sus necesidades específicas de apoyo.

b) Facturar a las personas usuarias los servicios prestados como se establece en el Titulo III del Decreto Foral 15/2015, de 2 de junio, por el que se regula el régimen de la aportación económica de la persona usuaria.

c) Promover la utilización del servicio en condiciones de igualdad por las personas usuarias, salvaguardar en todo caso su derecho a la dignidad e intimidad y cumplir con el deber de confidencialidad y reserva de los datos personales, familiares o sociales de las mismas.

d) Solicitar a la Diputación Foral de Gipuzkoa autorización previa para la cesión del presente convenio.

e) Comunicar con la debida antelación a la Diputación Foral de Gipuzkoa cualquier cambio o variación en el o los servicios prestados, y, en especial, cualquier modificación en la composición y/o cualificación de la plantilla.

f) Colaborar con y facilitar en todo momento las tareas de inspección, fiscalización y auditoría de la Diputación Foral de Gipuzkoa y, en particular, facilitar a la misma toda la información económica, fiscal, laboral, técnica y asistencial y de cualquier otra índole que le sea solicitada y que resulte necesaria para valorar la ejecución del convenio, con sujeción a la legislación en materia de protección de datos y a la restante normativa aplicable.

g) Someterse a las actuaciones de control financiero que correspondan a los órganos competentes de la Diputación Foral de Gipuzkoa en relación con los fondos públicos aportados.

ESKUe980fd84-b333-4829-9550-804c335801eb

h) Gipuzkoako Foru Aldundiari edozein diru laguntza, dohaintza edo ekarpen pribatu jakinaraztea, baldin eta hitzarmen honetan jasotako jarduerak finantzatzeko helburua badute.

h) Comunicar a la Diputación Foral de Gipuzkoa cualquier subvención, donación o aportación privada cuyo objeto sea la financiación de las actuaciones contempladas en el presente convenio.

i) Prestazioaren edo zerbitzuaren tipologiaren arabera aplikatzekoak diren baldintza material, funtzional eta pertsonalei buruzko arauak betetzea.

i) Cumplir la normativa reguladora de los requisitos materiales, funcionales y personales aplicables en función de la tipología de la prestación o servicio.

j) Lokalak, instalazioak, altzariak edo lanabesak funtzionamendu, garbiketa eta higiene baldintza egokietan mantentzea.

j) Mantener los locales, instalaciones, mobiliario o enseres en condiciones adecuadas de funcionamiento, limpieza e higiene.

k) Erabiltzaileen eskura jartzea kexak eta erreklamazioak egiteko sistema bat, Gizarte Politiketako Departamentuaren eskura ere egongo dena, haien edukia, izapideak eta erakundeak emandako erantzunak jakin ditzan.

k) Poner a disposición de las personas usuarias un sistema de quejas y reclamaciones, que deberá mantenerse a disposición del Departamento de Políticas Sociales para que éste conozca su contenido, su tramitación y la respuesta aportada por la entidad.

l) Erabiltzaileei eta Gizarte Politiketako Departamentuari balizko prestazio osagarriei aplikatutako tarifen berri ematea. Izan ere, erabiltzailearentzat hautazkoak direnez, ez dituzte diruz estaltzen Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekarpenek.

l) Dar a conocer a las personas usuarias y al Departamento de Políticas Sociales las tarifas aplicadas a las eventuales prestaciones complementarias que, al ser optativas para la persona usuaria, no estén cubiertas económicamente por las aportaciones de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

m) Kalte-ordainak ematea zerbitzuak erasandako hirugarrenei, non eta kaltea ez den eragin Gipuzkoako Foru Aldundiari egoztekoak diren arrazoiengatik.

m) Indemnizar los daños que se causen a terceros como consecuencia de la prestación del servicio, excepto cuando el daño sea producido por causas imputables a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

n) Gipuzkoako Foru Aldundiari komunikatzea hitzarmenaren xede diren jarduerak egiten dituzten langileei aplikatzekoa zaien hitzarmen kolektiboa edo lan hitzarmena, eta langile horiei aplikatuko zaizkien lan baldintzei buruz eskatzen den informazio oro ematea.

n) Comunicar a la Diputación Foral de Gipuzkoa el convenio colectivo o acuerdo laboral aplicable al personal que realice la actividad objeto del convenio y facilitar cuanta información se requiera sobre las condiciones de trabajo que se apliquen a dicho personal.

o) Langileei ordaintzea hitzarmen kolektiboaren edo lan hitzarmenaren arabera eta kategoria profesionala kontuan hartuta dagozkien ordainsariak.

o) Abonar al personal las retribuciones que según el convenio colectivo o acuerdo laboral le correspondan según su categoría profesional.

p) Bere gain hartzea bere zerbitzura dauden langileen kontratazioa eta formakuntza eta baita ere zerga arloan eta gizarte

p) Asumir a su cuenta y cargo la contratación y formación del personal a su servicio así como la aplicación de las disposiciones vigentes en

ESKUe980fd84-b333-4829-9550-804c335801eb

segurantzaren arloan indarrean dauden xedapenen aplikazioa

materia tributaria y de seguridad social

q) Bere kargura dauden langileen segurtasuna eta osasuna bultzatzea, lan arriskuen prebentziorako beharrezkoak diren neurriak aplikatuz eta jarduketak garatuz, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko 1995eko azaroaren 8ko 31/1995 Legean xedatutakoan oinarrituta.

q) Promover la seguridad y la salud del personal a su cargo mediante la aplicación de medidas y el desarrollo de las actividades necesarias para la prevención de riesgos laborales en base a lo dispuesto en la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales.

4. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN BETEBEHARRAK

4ª OBLIGACIONES DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

a) Erakundeari ordaintzea ZORTZIGARREN baldintzan ezarritako zenbatekoa, HAMARGARREN baldintzan ezarritako ordainketa sistemaren arabera, hitzarmenak xedetzat dituen zerbitzuei eta prestazioei eusten laguntzeko.

a) Abonar a la entidad el importe establecido en la estipulación OCTAVA de acuerdo con el sistema de abono fijado en la estipulación DÉCIMA, con el objeto de contribuir al sostenimiento de los servicios y prestaciones objeto del convenio.

b) Erabiltzaileei eskubidea bermatzea beren kasuari hobekien egokitzen zaion zerbitzu mota eta modalitatea libreki hauta dezaten, zerbitzuen erabilgarritasunaren arabera, aintzakotzat hartuz esleitutako erreferentziazko profesionalaren orientazioa eta agindu teknikoa.

b) Garantizar el derecho de las personas usuarias a elegir libremente el tipo y modalidad de servicio más adecuado a su caso, en función de su disponibilidad, atendiendo a la orientación y a la prescripción técnica de la persona profesional de referencia asignada.

c) Modu frogagarri batean jakinaraztea erakundeari sinatutako hitzarmenean eragin nabarmena izan lezakeen edozein inguruabar, baldin eta berekin ekarriko balu hitzarmena aldatzea, berritzea edo suntsiaraztea, eta delako inguruabarra indarrean jarri baino 2 hilabete lehenago jakinarazi behar dio.

c) Comunicar de manera fehaciente a la entidad cualquier circunstancia que afecte de manera relevante al convenio suscrito y pudiera suponer su modificación, renovación o resolución, debiendo hacerlo con una antelación mínima de 2 meses respecto a la fecha en que se haga efectiva la circunstancia de que se trate.

5. BITARTEKOAK ETA ANTOLAKUNTZA

5ª MEDIOS Y ORGANIZACIÓN

Erakundeak hitzarmen honetan sartzen diren zerbitzuak eskaintzeko azpiegitura, ekipamendu eta pertsonal egokiak eduki behar ditu, bai zuzeneko zein zeharkako kudeaketaren bidez. Horretarako, I. eranskinean adierazitako establezimenduak ditu. Establezimenduek hitzarmen hau garatu bitartean indarrean egongo diren xedapenetan ezarritakoa beteko dute.

La entidad contará con la infraestructura, el equipamiento y el personal necesario y adecuado, mediante gestión directa o indirecta, para la prestación de los servicios objeto del presente convenio. Para ello dispone de los establecimientos relacionados en el Anexo I, que deberán ajustarse a lo que disponen las disposiciones vigentes durante el periodo de vigencia del presente convenio.

ESKUe980fd84-b333-4829-9550-804c335801eb

Erakundearen funtzionamendu egiturak hitzarmenean adierazitako prestazioak modurik onenean eskaintzeko bezalakoa izan behar du eta lehenengo helburua izango da erabiltzaileen ahalik eta bizi kalitaterik handiena lortzea.

Nolanahi ere, II. eranskinean adierazitako giza baliabideak eduki behar ditu, Gizarte Politiketako Departamentuaren iritziz edo indarrean dagoen araudia betez, gutxienez bigarren baldintzan aipatutako zerbitzuak eskaintzea bermatuko dutenak.

La organización funcional de la entidad será la adecuada para prestar de forma óptima las prestaciones descritas en el presente convenio y estará orientada, prioritariamente, a lograr el mayor grado posible de calidad de vida de las personas usuarias.

En cualquier caso, deberá contar con los medios personales relacionados en el Anexo II, y que a juicio del Departamento de Políticas Sociales o en virtud de la normativa vigente, garanticen la prestación de los servicios relacionados en la estipulación segunda.

6. ERANTZUKIZUN ZIBILA

Erakundeak erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatuko du erabiltzaile eta hirugarrengoen aurrean zerbitzuaren funtzionamendutik eratorritako arriskuak estaltzeko modukoa izango dena. Erakundea behartuta dago polizaren kopia bat Gizarte Politiketako Departamentuan aurkeztera, hala eskatzen bazaio.

6ª RESPONSABILIDAD CIVIL

La entidad se compromete a la contratación de un seguro de responsabilidad civil que cubra suficientemente los riesgos derivados del funcionamiento del servicio frente a las personas usuarias y otros terceros. La entidad queda obligada a presentar una copia de la póliza al Departamento de Políticas Sociales en el caso de ser requerida.

7. SARTZEKO BALDINTZAK

Hitzarmen honetan sartzen diren zerbitzuetara joateko baldintzak zehaztuko ditu Gizarte Politiketako Departamentuak. Horretarako, zentroetara joan eta plazak esleitzeko erregimena eta eskatzaileen egokitasuna ezartzen duen sistema erabiliko da, eta foru ebazpen baten bidez hartuko da erabakia.

7ª CONDICIONES DE ACCESO

El Departamento de Políticas Sociales determinará las condiciones de acceso a los servicios objeto del presente convenio. A estos efectos, será de aplicación la regulación foral vigente en cada momento para el acceso y adjudicación de plazas, incluyendo los criterios de idoneidad de los demandantes. En cualquier caso, el acceso se producirá siempre previa resolución foral.

8. ERREGIMEN EKONOMIKOA

Gizarte Politiketako Departamentuak hitzarmen honetako prestazioak ordainduko ditu III. eranskinean jasotako zenbatekoei jarraituz.

Bestetik, plazek sortuko dituzten eskubide ekonomikoak ezartzeko, lau egoera mota bereizten dira:

8ª RÉGIMEN ECONÓMICO

El Departamento de Políticas Sociales se compromete a financiar las prestaciones objeto de este convenio a razón de las cantidades económicas recogidas en el Anexo III.

Por otra parte, para establecer los derechos económicos que generarán las plazas se distinguen cuatro tipos de situaciones:

ESKUe980fd84-b333-4829-9550-804c335801eb

Okupatutako plaza

Zerbitzuan sartzen den une beretik pertsona bati emandako plaza da. III. eranskinean jasotako plazako ekarpenaren adinako zenbatekoa jasotzeko eskubidea emango du.

Gordetako plaza

Emandako plaza, baina okupatu ez dena baliabideen sarrera indarrean dagoen araudiak dioenaren arabera; III. eranskinean jasotako plazako ekarpenaren %75a kobratzeko eskubidea emango du.

Okupatu gabeko plaza

Aurreko okupatzaileak baja eman ondoren, aldi batez, beste onuradun batek okupatzen ez duen plaza. Ez du kobratzeko eskubiderik sortuko.

Eman gabeko plaza

Halakotzat joko da hitzarmen honetan sartutako plazetatik okupatu gabe dagoena, inoiz ere ez zaiolako eman erabiltzaile bati. Ez du sortuko inolako kobrantza eskubiderik, lehenengo aldiz ematen ez den bitartean, eta orduan, goian ezarritako hiru egoeretako batean sartuko da, Foru Aldundiaren diru ekarpenaren ondorioetarako.

Zerbitzu guztientzakoa:

Hitzarmen honek ez du inolako eskubide ekonomikorik sortuko zentroan obrak egiteagatik, nahiz eta obrak zerikusia izan hitzartutako plazekin.

Plaza ocupada

Plaza asignada a una persona desde el momento en que se produce su incorporación al servicio. Generará un derecho de cobro igual a la aportación por plaza recogida en el Anexo III.

Plaza reservada

Plaza asignada y no ocupada de conformidad con lo establecido en la normativa en vigor en materia de régimen de acceso a los recursos. Generará un derecho de cobro igual al 75% de la aportación por plaza recogida en el Anexo III.

Plaza no ocupada

Plaza que tras la baja de su anterior ocupante no es ocupada temporalmente por una persona beneficiaria. No generará derecho de cobro.

Plaza no asignada

Tendrán esta consideración las plazas incluidas en el presente convenio que estén desocupadas porque no hayan sido asignadas en ninguna ocasión a una persona usuaria. No generarán derecho de cobro alguno hasta que se produzca la primera asignación, momento en el que pasarán a incluirse en alguna de las tres situaciones establecidas anteriormente a efectos de la aportación económica foral.

Común para todos los servicios:

El presente convenio no generará ningún derecho económico por la realización de obras en el centro, aunque dichas obras afecten a las plazas concertadas.

9. DOKUMENTAZIOA

Frogagiri tekniko eta ekonomiko erakundeak IV. eranskinean aurreikusitako dokumentazioa aurkeztu behar du. Hala ere, Gizarte Politiketako Departamentuak beharrezko iritzitako beste edozein informazio ere eska diezaioke.

9ª DOCUMENTACIÓN

Sin perjuicio de cuanta información se estime necesaria y sea solicitada por el Departamento de Políticas Sociales a efectos de las justificaciones técnica y económica, la entidad presentará la documentación establecida en el Anexo IV.

10. ORDAINTZEKO ERA

10ª SISTEMA DE ABONO

ESKUe980fd84-b333-4829-9550-804c335801eb

Ekainaren 14ko 36/2005 Foru Dekretuak (fakturen tramitazio elektronikoaren prozedura onartzekoak), azaroaren 23ko 470bis/05 Foru Aginduak (fakturen tramitazio elektronikoaren prozedura arautzekoak) eta abenduaren 20ko 1.330/2007 Foru Aginduak (Gipuzkoako Foru Aldundiaren esparruan autofakturen tramitazioa arautzekoak) ezarritakoari jarraikiz, ordainketa, autofaktura sistema bidez egingo da. Honela, erakunde kudeatzaileak Gipuzkoako Foru Aldundiari baimena ematen dio aipaturiko zerbitzuei dagozkien **hilabeteroko** fakturak edota ordezko dokumentuak emateko.

En virtud de lo recogido en el Decreto Foral 36/2005, de 14 de junio, por el que se aprueba el procedimiento de tramitación electrónica de facturas, así como por la Orden Foral 470bis/05, de 23 de noviembre, sobre regulación del procedimiento de tramitación electrónica de facturas y la Orden Foral 1.330/2007, de 20 de diciembre, que regula la tramitación de autofacturas en el ámbito de la Diputación Foral de Gipuzkoa, el abono se realizará mediante la modalidad de autofacturas, para lo cual la entidad autoriza a la Diputación Foral de Gipuzkoa para la expedición de facturas correspondientes a los servicios anteriores, que tendrán periodicidad **mensual**.

11. ZERGA ETA GIZARTE SEGURANTZA ARLOETAKO BETEBEHARRAK BETETZEKO EGIAZTAPENA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluaren 2. apartatuan xedatutakoarekin bat etorriz, erakundeak eskubidea izango du jada Administrazio jardulearen esku dagoen edo beste edozein administraziok egin duen dokumenturik ez aurkezteko.

Horretarako, erakundeak baimena ematen dio Gizarte Politiketako Departamentuari zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari buruzko informazioa kontsultatu edo biltzeko, hitzarmen honek indarrean dirauen bitartean.

Erakundeak modu arrazoituan uko egin ahal izango dio aipatutako datuak kontsultatzeari; kasu horretan, kontsultatzea baimentzen ez duen dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

11ª ACREDITACIÓN DEL CUMPLIMIENTO DE OBLIGACIONES EN MATERIA TRIBUTARIA Y DE SEGURIDAD SOCIAL

De conformidad con lo dispuesto en el apartado 2 del artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la entidad tendrá derecho a no aportar documentos que ya se encuentren en poder de la Administración actuante o hayan sido elaborados por cualquier otra Administración.

A tales efectos, la entidad autoriza al Departamento de Políticas Sociales para consultar o recabar información sobre el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social, durante el tiempo de vigencia del presente convenio.

La entidad podrá oponerse de forma motivada a la consulta de los datos citados, en cuyo caso deberá aportar los documentos cuya consulta no autorice**.**

12. DATU PERTSONALEN BABESA, ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA ETA INFORMAZIOAREN SEGURTASUNA

Datu pertsonalen babesaren, administrazio elektronikoaren eta informazioaren segurtasunaren alorrean indarrean dagoen

12ª PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL, ADMINISTRACIÓN ELECTRÓNICA Y SEGURIDAD DE LA INFORMACIÓN

La información y datos de carácter personal que puedan resultar precisos para el cumplimiento del presente convenio se encuentran amparados por

ESKUe980fd84-b333-4829-9550-804c335801eb

araudiak babesten ditu hitzarmen hau betetzeko beharrezkoak diren informazioa eta datu pertsonalak.

Baldin eta hitzarmen aplikatzearen ondorioz erakundeak aukera badu Gipuzkoako Foru Aldundiaren ardurapekoak diren datu pertsonalak eskuratzeko, erakundea izango da datu horien tratamendu eragilea.

Xede horretarako, VI. eranskinean adierazten dira datu pertsonalen babesaren, administrazio elektronikoaren eta informazio segurtasunaren alorrean errespetatu beharreko bermeak.

la normativa en vigor en materia protección de Datos de Carácter Personal, de administración electrónica y de seguridad de la información.

Cuando la ejecución del convenio implique el acceso de la entidad a datos de carácter personal de cuyo tratamiento sea responsable la Diputación Foral de Gipuzkoa, la entidad tendrá la consideración de encargada del tratamiento.

A tales fines, se indican en el anexo VI las garantías que en materia de protección de datos de carácter personal, de administración electrónica y de seguridad de la información habrán de ser respetadas.

13. BERDINTASUNA

Erakundeak kontuan izan beharko du emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan indarrean dagoen legeria eta, bereziki, martxoaren 9ko 2/2015 Foru Araua, emakumeen eta gizonen berdintasunarena. (GAO 50 zk. 2015/03/16)

13ª IGUALDAD

La entidad deberá tener en cuenta la legislación vigente en materia de igualdad de mujeres y hombres y en especial la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres. (BOG, Nº 50 16/03/2015).

14. KALITATEA

Hitzarmenaren indarraldian zehar, zentroaren bizitza egokienaren alde erakundeak Kalitatea Hobetzeko Plana egin beharko du bere zentro eta zerbitzuetan, zentroaren antolamendua eta funtzionamendua ebaluatu eta gero. Kalitateko plan horretan metodo bat finkatuko da, egoitzari buruz besteak beste ondorengo puntuak aztertzeko: laguntza pertsonala, erosotasuna, bizimodua eta, oro har, zentroaren bizi kalitatearekin zerikusirik duten alderdi guztiak.

14ª CALIDAD

La entidad deberá implantar durante el periodo de vigencia del convenio en sus centros y servicios un Plan de mejora de la calidad dirigido a la optimización de la vida en el centro, una vez realizada la evaluación de la organización y del funcionamiento del centro. El Plan de Calidad implantado debiera contemplar un método que analice, entre otros, la atención personal, el confort, el funcionamiento del centro, la relación con el exterior, la vida en el centro y, en general, todos los aspectos que redunden en la calidad de vida en el centro.

15. PUBLIZITATEA

Erakundeak zentroaren sarrera nagusiko leku ikusgarri batean informazio ohol bat jartzeaz arduratuko da. Hau Gipuzkoako Foru Aldundiak emango dio eta bertan Gizarte Politiketako Departamentuarekin duen lankidetza azalduko da.

15ª PUBLICIDAD

La entidad deberá hacerse cargo de colocar en lugar visible del acceso principal al centro una placa informativa que le será facilitada por la Diputación Foral de Gipuzkoa, en la que constará la colaboración con el Departamento de Políticas Sociales.

ESKUe980fd84-b333-4829-9550-804c335801eb

Hitzarmen honekin zerikusia izanik kanpo proiekzioa duten ekintzetan Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuaren lankidetza agerian jarrita egongo da, haren izen eta logotipoarekin, hau da, Foru Aldundiaren anagrama eta ondorengo testua azalduko dira:

En cualquier actividad que, relacionada con el presente convenio, tenga proyección exterior, se hará constar la colaboración del Departamento de Políticas Sociales, incluyendo su denominación y logotipo, siendo éste el formado por el anagrama de la Diputación Foral acompañado del siguiente texto:

...REKIN HITZARTUTAKO PROGRAMA/PROGRAMA CONCERTADO CON…

Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Politiketako Departamentua
Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Políticas Sociales

16. <u>EUSKARA</u>

Erabiltzaileen hizkuntza eskubideak bermatzearren, eta Euskararen Erabilera Normaltzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak eta euskararen erabilera normalizatzeko planak Gipuzkoako Foru Aldundia eta bere organismo autonomoen jarduera esparruan 2018-2022 aldirako, xedatutakoaren arabera (2018ko abuztuaren 3ko GAO, 149 zk.) edo indarrean dagoen beste araudiren bat, elkarteak euskara erabiliko du, gutxienez:

- Bere argitalpen, idatzi, iragarki, eta abarretan.
- Telefonoa hartzean, megafonia bidez mezuak ematean, eta horrelakoetan.
- Seinale, errotulazio eta horrelakoetan.
- Proiektuaren garapenarekin batera egiten diren komunikazio guztietan.

Kontuan eduki behar da, programak eta jarduerak antolatzerakoan, han dauden pertsonen hizkuntz aukera. Era berean, langileak kontratatzerakoan kontuan eduki behar da euskara maila, erabiltzaileekin eta haien senideekin euskaraz egin dezaten.

Zentroaren urteko memorian berariaz adieraziko

16ª <u>EUSKERA</u>

Con el fin de garantizar los derechos lingüísticos de las personas usuarias, y de acuerdo con la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del uso del Euskera, y el Plan de normalización del uso del euskera en la Diputación Foral de Gipuzkoa y sus Organismos Autónomos para el período 2018-2022 (BOG núm. 149, de 3 de agosto de 2018) u otra normativa vigente, la entidad utilizará el euskera, como mínimo:

- En sus publicaciones, escritos, anuncios, etc.
- En la recepción de llamadas telefónicas y difusión de mensajes por megafonía y similares.
- En la señalización, rotulación y similares.
- En cuantas comunicaciones se realicen en desarrollo del proyecto.

Se tendrá en cuenta la opción lingüística de las personas usuarias en la organización de programas y actividades. Asimismo, se tendrá en cuenta el conocimiento del euskera en la contratación del personal, para garantizar su utilización con las personas usuarias del servicio y sus familiares.

En la memoria anual del centro se hará mención

ESKUe980fd84-b333-4829-9550-804c335801eb

da aipatutako jarduera horiek nola eraman diren aurrera.

expresa al desarrollo de las actuaciones anteriormente citadas.

17. IKUSTALDIAK / IKUSKAPENAK

Gizarte Zerbitzuei buruzko 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak foru aldundiei egozten die haien eskumenen barnean dauden zerbitzu, erakunde eta zentroen administrazioaren ikuskapen ahalmena.

Horiek horrela, administrazio bakoitzean zeregin horretaz arduratuko den teknikaria agintaritzaren agentetzat hartu behar da, eta bere egitekoa izango da gizarte zerbitzuen alorreko lege xedapenak betetzen direla zaintzea, kontrolatzea eta egiaztatzea.

Horrenbestez, elkarteak erraztasunak emango dizkie Gizarte Politiketako Departamentuko teknikariei bere egoitza eta instalazioetan sartzeko eta dokumentuak ikusteko, eta oro har, ikuskaritza lana hobetuko duen zernahi egiteko. Teknikari horiek eska dezakete elkartearen zuzendaritzako kideak etortzea, baita onuradunak eta haien familiakoak ere.

17ª VISITAS / INSPECCIÓN

La Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, atribuye a las Diputaciones Forales la potestad administrativa de inspección de los servicios, entidades y centros que recaigan dentro del ámbito de su competencia.

En su virtud, el personal que en cada Administración realice dicha función tendrá la consideración de agente de la autoridad, la cual comprende el ejercicio de las funciones de vigilancia, control y comprobación del cumplimiento de las disposiciones legales en materia de Servicios Sociales.

En consecuencia, la entidad se obliga a facilitar el acceso del personal del Departamento de Políticas Sociales a sus dependencias, instalaciones, documentos y en general, a cuanto mejore la función inspectora. Dicho personal podrá solicitar la comparecencia de los directivos de la entidad, así como la de las personas usuarias y sus familias.

18. ALDAKETAK

Hitzarmenaren indarraldian zehar, eranskinetan jasotako edozein alderdi aldatu ahalko da, bi aldeek adostu eta onartzen dutela adierazi ondoren.

18ª MODIFICACIONES

Durante la vigencia del Convenio, cualquiera de los aspectos recogidos en los anexos podrá ser modificado, previo acuerdo y aprobación de ambas partes.

19. GUTXIENEKO SOLDATA-BALDINTZEN ARLOKO EXEKUZIO-BALDINTZA BEREZIAK

Erakundeak lan-arloan, gizarte-segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden lege-, erregelamendu- eta hitzarmen-xedapen guztiak bete beharko ditu. Era berean, hitzarmena gauzatzen den bitartean, hitzarmen honen V. eranskinean ezarritako gutxieneko soldata-baldintzak aplikatu beharko ditu, gutxieneko lan-baldintza gisa, alde batera utzi gabe eranskin horretan xedatutakoa hobetzen

19ª CONDICIONES ESPECIALES DE EJECUCIÓN EN MATERIA DE CONDICIONES MÍNIMAS SALARIALES

La entidad deberá cumplir todas las disposiciones legales, reglamentarias y convencionales vigentes en materia laboral, seguridad social, y seguridad y salud en el trabajo. Asimismo, deberá aplicar durante la ejecución del convenio, a modo de condiciones laborales mínimas, las condiciones mínimas salariales que se establecen en el Anexo V del presente convenio, sin perjuicio de otros convenios o pactos de empresa que estuvieran en

ESKUe980fd84-b333-4829-9550-804c335801eb

duten eta indarrean dauden beste enpresa-hitzarmen edo enpresa-itun batzuk.

Nolanahi ere, aplikatu beharreko zerbitzuaren fitxari dagozkion gizarte-zerbitzuen prestazioak gauzatzeko, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan araututakoaren arabera, erakundeak, hitzarmena gauzatzen den bitartean, kasuan kasuko zerbitzuari aplikatu beharreko araudian ezarritako baldintzak bete beharko ditu (sakontzeko asmorik gabe, maiatzaren 22ko 38/2007 Foru Dekretua, mendeko adinekoentzako egoitza-zerbitzuak ituntzeko beharrezko baldintzak zehazten dituena –ekainaren 29ko 8/2021 Foru Dekretuaren bidez aldatua– edo, hala badagokio, urriaren 17ko 202/2000 Foru Dekretua, mendeko adinekoentzako eguneko zentroei buruzkoa edo ekainaren 2ko 394/2006 Foru Agindua, psikogeriatriako unitateen baldintzak zehazten dituena).

vigor y mejoren lo dispuesto en el citado Anexo.

En todo caso, con el fin de llevar a cabo las prestaciones de servicios sociales correspondientes a la ficha del servicio que resulte aplicable, según lo regulado en el Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, la entidad deberá cumplir durante toda la ejecución del convenio los requisitos necesarios establecidos en la normativa que resulte de aplicación al servicio en cuestión (sin ánimo exhaustivo, Decreto Foral 38/2007, de 22 de mayo, por el que se determinan las condiciones necesarias para la concertación de servicios residenciales para personas mayores dependientes -modificado mediante el Decreto Foral 8/2021, de 29 de junio- o, en su caso, Decreto Foral 202/2000, de 17 de octubre, sobre los Centros de Día para personas mayores dependientes u Orden Foral 394/2006, de 2 de junio por la que se determinan las condiciones de las Unidades de Psicogeriatría o normativa posterior que lo desarrolle o modifique).

20. HITZARMENA IRAUNGITZEKO ARRAZOIAK

Hitzarmen hau iraungitzeko arrazoi izango da:

- Indarraldiaren epea betetzea.

20ª CAUSAS DE EXTINCIÓN

Será causa de extinción del presente convenio:

- El cumplimiento del plazo de vigencia.

21. HITZARMENA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Ondoan aipatzen direnak hitzarmen hau suntsiarazteko arrazoi izango dira bidezkoak, izan daitezkeen kalte-ordainetarako egintzak alde batera utzi gabe:

a) Erakundeari konkurtso deklarazioa edo kaudimengabeziaren deklarazioa ematea edozein prozeduratan.

b) Eskatzekoak diren kalitatezko estandarrak eta parametroak ez betetzea, ez eta dagozkion laguntza helburuak ere, baldin eta ez-betetze hori hitzartutako erakundeari egoztekoa bada.

21ª CAUSAS DE RESOLUCIÓN

Serán causas de resolución del presente convenio, sin perjuicio de las acciones de indemnización o resarcimiento que procedan, las siguientes:

a) La declaración de concurso de la entidad o la declaración de insolvencia en cualquier procedimiento.

b) El incumplimiento de los estándares y parámetros de calidad exigibles, así como de los objetivos asistenciales que correspondan, siempre que dicho incumplimiento sea imputable a la entidad conveniada.

ESKUe980fd84-b333-4829-9550-804c335801eb

c) Isun irmoa egotea arau-hauste larria egiteagatik indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga eta Gizarte Segurantza arloetako betebeharrak betetzeari dagokionez, merkatuko diziplina arloan, lanbide arloan, laneratze arloan eta eskubide berdintasunean nahiz desgaitasuna duten pertsonak ez diskriminatzekoan, edo arau-hauste oso larria egiteagatik gizarte arloan, barne hartuta laneko arriskuen prebentzio arloko arau-hausteak, 2000ko abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginean xedatutakoaren arabera, baita dekretu horrek 22. artikuluko 2. zenbakian aurreikusitako arau-hauste larria egiteagatik.

c) La existencia de sanción con carácter firme por infracción grave en materia de cumplimiento de las obligaciones tributarias o de Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes, disciplina de mercado, en materia profesional o en materia de integración laboral y de igualdad de oportunidades y no discriminación de las personas con discapacidad, o por infracción muy grave en materia social, incluidas las infracciones en materia de prevención de riesgos laborales, de acuerdo con lo dispuesto en el texto refundido de la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social, aprobado por el Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto , así como por la infracción grave prevista en el artículo 22.2 del mismo.

d) Gipuzkoako Foru Aldundiak behin eta berriro eta modu larrian ez betetzea elkartearekin dituen diru betebeharrak.

d) El incumplimiento reiterado y grave por parte de la Diputación Foral de Gipuzkoa en sus obligaciones económicas con la entidad.

e) Erakundeak hitzarmen honen baldintzak eta betebeharrak ez betetzea.

e) El incumplimiento por parte de la entidad de los requisitos y obligaciones del presente convenio.

f) Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldez aurreko baimenik gabe hitzarmena aldatzea dakarten jarduerak egitea erakundeak.

f) La realización por la Entidad de actuaciones que impliquen la modificación del convenio sin autorización previa de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

g) Izaera pertsonaleko datuen babes arloan isiltasuna gordetzeko beharra ez betetzea.

g) El incumplimiento de la obligación de guardar sigilo en materia de protección de datos de carácter personal.

h) Hitzarmena betetzeko eskainitako bitartekoak ez edukitzea, argi eta garbi.

h) La evidencia de falta de medios ofertados para cumplir el convenio.

i) Hitzarmen honetan adierazitako baldintzetako edozein ez egiaztatzea.

i) La falta de acreditación de cualquiera de los requisitos señalados en el presente convenio.

j) Bi aldeen artean ados jartzea.

j) El mutuo acuerdo entre las partes firmantes.

22. <u>JOKABIDE KODE ETA ZUZENTASUN INSTITUZIONALEKO ESPARRUA</u>

Erakundeak konpromisoa hartzen duela Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta foru sektore

22ª <u>CÓDIGO DE CONDUCTA Y MARCO DE INTEGRIDAD INSTITUCIONAL</u>

La entidad se compromete al cumplimiento en todos sus términos del Código de Conducta y

ESKUe980fd84-b333-4829-9550-804c335801eb

publikoa osatzen duten gainontzeko erakundeen diru laguntzei aplikatu beharreko Jokabide Kodea eta Erakundearen Zuzentasun esparrua betetzeko, Diputatuen Kontseiluak 2018ko urriaren 2ko saioan onartu eta honako web elektroniko honetan lizitatzaileen eskura dagoena, www.gipuzkoa.eus/eu/aldundia/zuzentasun

Marco de integridad institucional aplicable a ayudas y subvenciones de la Diputación Foral de Gipuzkoa y del resto de entidades que integran el sector público foral, aprobado por el Consejo de Gobierno Foral, el 2 de octubre de 2018 y cuyo texto se encuentra disponible en www.gipuzkoa.eus/es/diputacion/sistema-integridad

23. ARAUBIDE JURIDIKOA

Izaera administratiboko hitzarmen bat da eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoko urriaren 1eko 40/2015 Legea babesten du, bi administrazio publiko edo gehiagoren artean sinatutako hitzarmenak arautzen dituena, edo administrazio publiko bati lotutako edo haren mendeko zuzenbide publikoko erakunde bi edo gehiagoren artean administrazio arteko sinatutako hitzarmenak arautzen dituena.

Haren harpidetzaren xedea kudeaketa publikoaren eraginkortasuna hobetzea da, eta herri-onurako jarduerak burutzea, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko legedia betez.

Izaera administratiboko hitzarmena denez, aldeek espresuki beteko dute administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa.

Gainera, Udalak bete egin behar ditu Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legean, lege hori garatzen duten eta aplikatzekoak diren dekretuetan eta hitzarmen honetan aipatzen diren foru xedapenetan ezarritako obligazioak.

23ª RÉGIMEN JURÍDICO

El presente convenio es de naturaleza administrativa y se ampara en la Ley 40/2015, de 1 de octubre de 2015, de Régimen Jurídico del Sector Público, a través de la cual se regulan los convenios interadministrativos firmados entre dos o más Administraciones públicas, o bien entre dos o más organismos públicos o entidades de derecho público vinculados o dependientes de distintas Administraciones públicas.

Su suscripción tiene como objeto la mejora de la eficiencia de la gestión pública, así como la realización de actividades de utilidad pública cumpliendo con la legislación de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera.

La naturaleza administrativa del presente convenio conlleva el expreso acatamiento de las partes a la jurisdicción contencioso-administrativa

Además, el Ayuntamiento estará sujeto a las obligaciones establecidas en la Ley 12/2008, de 5 de diciembre de Servicios Sociales, en los decretos de desarrollo de la misma que resulten de aplicación y en las disposiciones forales citadas o referidas en el presente convenio.

24. INDARRALDIA ETA LUZAPENA

Hitzarmen hau hasieran adierazitako egunean jarriko da indarrean, eragin ekonomikoa 2023ko urtarrilaren 1etik duelarik, eta indarraldia 2026ko abenduaren 31 artekoa izango da. Gastuaren izaera dela eta, segidako traktukoa eta iraunkorra baita, ekitaldi bakoitzaren hasieran egingo da urteko bakoitzari dagokion gastuaren baimena eta xedapena, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorretan zuzkidura nahikoa

24ª VIGENCIA Y PRÓRROGA

El presente convenio entrará en vigor en la fecha señalada al inicio, con efectos económicos desde el 1 de enero de 2023 y tendrá vigencia hasta el 31 de diciembre de 2026. Debido a la naturaleza del gasto, que es de tracto sucesivo y carácter permanente, la autorización y disposición del gasto correspondiente a cada anualidad se realizará al comienzo de cada ejercicio, una vez comprobada la existencia de dotación suficiente

ESKUe980fd84-b333-4829-9550-804c335801eb

dagoela egiaztatu ondoren. Hori guztia, alderdietako batek formalki salatzen ez badu, urte bakoitza amaitu baino bi hilabete lehenago gutxienez.

en los Presupuestos generales del THG. Todo ello, salvo denuncia formal con una antelación mínima de dos meses a la finalización de cada anualidad, efectuada por cualquiera de las partes.

4 urteko gehieneko epe hori amaitzean, hitzarmena berariaz luzatu ahal izango da ondoz ondoko urte naturaletan, gehienez 4 urte gehiagoz, betiere luzatutako ekitaldirako aurrekontu-xedapen egokia badago.

Al término de este plazo máximo de 4 años, el convenio podrá ser prorrogado expresamente por períodos anuales naturales sucesivos, hasta un máximo de 4 años adicionales, y siempre que exista disposición presupuestaria adecuada para el ejercicio prorrogado.

Aurreko guztia irakurri ondoren, bi aldeek agiri hau sinatzen dute adostasunaren seinale.

Leído el presente documento, las partes comparecientes lo firman en prueba de conformidad.

ZARAUZKO UDALAren izenean /
Por el AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ

Sin./Fdo.: XABIER TXURRUKA FERNÁNDEZ

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAren izenean /
Por la DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

72460441E MAITE PEÑA (R: P2000000F)
2023.05.09 12:18:51 +02'00'

Sin./Fdo.: MAITE PEÑA LÓPEZ

ESKUe980fd84-b333-4829-9550-804c335801eb

HITZARMENAREN I. ERANSKINA/ ANEXO I DEL CONVENIO

ZARAUZKO UDALA

ZENTROAK, ZERBITZUAK ETA KOKALEKUA
CENTROS, SERVICIOS Y LOCALIZACIÓN

Zentro mota Tipo de centro	Zentroaren izena/ Nombre Del centro	Helbidea Dirección	Herria Localidad
Mendetasun-egoeran dauden adinekoentzako eguneko zentroa / Centro de día para personas mayores en situación de dependencia.	Maria Etxetxiki eguneko zentroa / Centro de día Maria Etxetxiki	Zigordia Kalea, 20	Zarautz

ESKUe980fd84-b333-4829-9550-804c335801eb

HITZARMENAREN II. ERANSKINA / ANEXO II DEL CONVENIO

ZARAUZKO UDALA

LANGILEAK / RELACIÓN DE PERSONAL (urte osoa / año completo) (1)

Zentroa / Centro: MARIA ETXETXIKI EGUNEKO ZENTROA / CENTRO DE DÍA MARIA ETXETXIKI ZARAUTZ

ZENTROA / *CENTRO*	**MENDETASUN-EGOERAN DAUDE ADINEKOENTZAKO EGUNEKO ZENTROA / CENTRO DE DÍA PARA PERSONAS MAYORES EN SITUACIÓN DE DEPENDENCIA**
Lan Hitzarmenaren urteko ordu kopurua / *Nº horas anuales convenio laboral*	1.592

Hitzartutako PLAZAK / *PLAZAS conv.*	**Lanegunak / *Laborables***	**Asteburuak eta jaiegunak / *Fines de Semana y Festivos***	**GUZTIRA / TOTAL**
Zerbitzu egunak-urtean: / *Nº días servicio-año:*	**246**	**119**	**365**
Batezbesteko okupazioa / *Ocupación media*			Batezbestekoa / Promedio
MBB 0 / *BVD 0*	0	0	0,0
MBB II-III (ezag.narr.gabe) / *BVD II-III (sin deterioro cogn.)*	22	14	19,4
MBB II-III (ezag.narriad.) / *BVD II-III (con deterioro cogn.)*	22	15	19,7
GUZTIRA / *TOTAL*	**44**	**29**	**39**
Laguntza zama / *Carga asistencial*	**1,100**	**1,103**	**1,101**

ARRETA MOTA / TIPO DE ATENCIÓN	**DEDIKAZIO ORDUAK URTEAN/ HORAS ANUALES DE DEDICACIÓN**			**L.O.L.B./ P.E.J.C.(*)**
	Lanegunak Laborables	**Asteburuak eta jaiegunak / Fines Semana y Festivos**	**GUZTIRA TOTAL**	
Eguneroko jarduetarako laguntza (EJL) / Apoyo a las actividades de la vida diaria	10.914,2	3.490,7	14.404,9	9,05
Gizarte-lana / Trabajo Social	595,3	190,4	785,7	0,49
Erizaintza / Enfermería	793,8	253,9	1.047,7	0,66
Okupazionala / Ocupacional	793,8	253,9	1.047,7	0,66
Psikologikoa, pedagogikoa, edo psikopedagogikoa / Psicológica, pedagógica o psicopedagógica	297,7	95,2	392,9	0,25
Medikoa / Médica	396,9	126,9	523,8	0,33
GUZTIRA/TOTAL	**13.791,7**	**4.411,0**	**18.202,7**	**11,44**

ESKUe980fd84-b333-4829-9550-804c335801eb

KUDEAKETAKO PERTSONALA / PERSONAL DE GESTIÓN	DEDIKAZIO ORDUAK URTEAN/ HORAS ANUALES DE DEDICACIÓN			L.O.L.B./ P.E.J.C.(*)
	Lanegunak Laborables	Asteburuak eta jaiegunak / Fines Semana y Festivos	GUZTIRA TOTAL	
Zuzendaritza / Dirección	396,9	126,9	523,8	0,33
Administrazioa / Administración	396,9	126,9	523,8	0,33
